



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko maiatzaren 14a

55. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzekoa. Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Haurtzakako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ahultasun egoera berezian egoteagatik senidetze-ekintzak behar dituzten herrien zentsua egin dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen zehatz dezan Ebro ibaia lehenertzeko eta babesteko plana betetzeko egutegia. Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mendiko aterpe libreen sarea lehenertzeko eta eraikitzeko plan bat abian jar dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 18/1986 Foru Legea betetzeko erregelamendu berria presta dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da pobrezia behatoki publikoa sor dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da luzamendutan ibili gabe NUPen Medikuntzako ikasketak ezartzeko elkarriketak abiaraz ditzan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Mendekotasun Agentziaren menpeko haurtzaindegiek “haur eskola” izena har dezaten aurrerantzean. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da administrazio-zuzemenak egiteko elkarroperagarritasuna erraztu dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (14. or.).

—Adierazpen instituzionala, Kolonbiako eta Antiokiako herri indigenen eskubideen urraketari eta herri horiek nahiz horien kultura berehala desagertzeko arriskuari buruzkoa. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, “Liburuzainen prestakuntza” eta “Hitzarmena IPESekin, dokumentazio zentroa mantentzeko” kontusailei buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (17. or.).
- Galdera, “Kultur kudeatzaileen prestakuntza”, “Barañaingo Auditorioarekiko hitzarmena” eta “Lenaers Fundazioarentzako laguntza” kontusailei buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Zuzkidura Bibliografikoko Ohiz Kanpoko Plana dela-eta Kultura Ministerioarekin hitzarmena sinatzeari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Otik 3 urtera bitarteko eskoletan, eta zehazki Burlatakoan, eredu hirueleduna ezartzearen komenigarritasun eta bideragarritasun pedagogikoari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (19. or.).
- Galdera, zahar-etxeetako langileen behin-behinekotasunari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (20. or.).
- Galdera, bide-seinale zaharrak kentzeko planei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (20. or.).
- Galdera, deialdi publikoetako lanpostuak betetzeko prozedurari buruzkoa, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (21. or.).
- Galdera, Shanghaiko Erakusketa Unibertsalean parte hartzeari buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (22. or.).
- Galdera, subsidiarotasun-printzipioaren kontrolari buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (22. or.).
- Galdera, Alloko saihesbidearen eta Sesmako errepedearen arteko gurutzaguneko kale-argien gastuei buruzkoa, José María Vázquez Royo jaunak egina (23. or.).
- Galdera, NA-6120 errepedeko Berbintzanako bideunearen egoerari buruzkoa, José María Vázquez Royo jaunak egina (23. or.).
- Galdera, Iruritako ikastetxe publiko berrian jantokia paratzeko gune bat ukatzeari buruzkoa. Galdera erretiratzea (24. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena.

ZIOEN AZALPENEA

Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko 17/2005 Foru Legean erantzukizun sistema desberdina ezartzen da zirkulazio istripuen kasuetarako eta gainerako gorabeheretarako. Azken urteotan, ehiza espezieek nekazaritzako laboreei eginiko kalteek agerian utzi dute beharrezkoa dela

zirkulazio istripuetarako ezarritako erantzukizun sistema zabaltzea, sistema horrek behar bezala funtzionatzen baitu gainerako gorabeheretarako konponbide gisa. Hori dela eta, aipatu foru legearen 86. artikulua aldatzea proposatzen da, bai eta beste xedapen iragankor bat ezartzea, erantzukizun sistemaren aplikazio berri hori osatze aldera.

Hala, aldaketaren kausa da legegileak interesa duela gaur egungo erantzukizun sistema ordezkatzeko eta ehiztariaren erantzukizunaren esparrua zehazteko eta mugarritzeko, halako moduz non ehizarekin eta jarduera horrek daramatzan administrazio-betebeharrekin lotura zuzena duten kasuetara mugatuko baita eta erantzukizun-esparru horretatik at utziko baitira ehiza-kudeaketaz bestelako arrazoiak tarteko eragiten diren kalteak, bai eta kalte horiek saiheste aldera hartu beharrek prebentzio- eta babes-neurriak ere. Halaber, legegilearen nahia da bideen, ubideen edota antzeko azpiegituretan mantentze-, zaintza- eta prebentzio-lanak egiteko konpromisoa eta erantzukizuna ezartzea, halako moduz non erantzukizunen banaketa hutsaren gaitetik, garrantzi berezia emanen zaion prebentzioari eta kalteak txikiagotzeari.

Artikulu bakarra.

Bat. 15. artikuluari 4. idatz-zatia gehitu zaio, testu honekin:

“Ehiza-barrutietan horiek zeharkatzen dituzten bide publikoak, ubideak edo antzeko azpiegiturek badaude, beren luzera osoan hesituta daudenak, edota halakoekin muga egiten badute, bide, ubide edo azpiegitura horien titularrei dagokie beharrezkoak diren zaintza- eta prebentzio-lanak egitea, bertan bizi diren animaliek besteren ondasunetan kalteak eragin ditzaten saiheste aldera.

Bi. 20. artikulua 2. idatz-zatiko i) letra kentzea.

Hiru. 86. artikulua aldatu da, eta testu hau izanen du:

“86. artikulua. Ehizarako animaliek kalteak eragiteagatiko erantzukizuna:

1. Ibilgailuek ehizarako animaliak harrapatuta istripuak gertatzen direnean, hauek izanen dira kalte pertsonalen eta ondarean eginiko kalteen erantzuleak:

a) Erantzukizuna animalia harrapatu duen gidariarena izanen da, istripua ekiditeko behar adinako neurriak hartu ez baditu edo zirkulazioari buruzko arauak urratzea egotzi ahal bazaio.

c) Erantzukizuna ehizaren arloan eskumena duen administrazioarena izanen da, ehiza aprobetxamendua antolatzekeo xedapenen ondorioz gertatzen bada istripua.

c) Erantzukizuna izanen da istripua gertatu den bide publikoa ustiatzen duen titularrarena, istripua animaliek bidea hartzearen aurkako babes neurriak ez kontserbatzearen ondorioz gertatzen baldin bada, betiere haien mantentzea bidea ustiatzen duen titularraren erantzukizuna denean, edo, bestela, istripua gertatzen bada ehizarako faunarentzako pasabideak edo ehizarako animaliak errepidean sartzeko arriskua iragartzen duten seinale egokiak ez egotearen ondorioz.

d) Erantzukizuna izanen da ehizaren aprobetxamenduaren edo, kasua bada, barrutiaren titularrarena, istripua soilik zuzenean gertatzen bada ehiza-jardueraren edota lege honek ezartzen dizkion administrazio-betebeharrak ez betetzearen ondorioz. Hala ere, ezin izanen zaio erantzukizunik egotzi istripua autobide edo autobia batean gertatzen bada, ez eta animalien iragatea ohiko den errepede zati batean gertatzen bada ere.

2. Ehiza espezieek nekazaritzako, basozaintzako edo abeltzaintzako ustiategi edo azpiegituretan eragindako kalteen kasuan, hauek izanen dira kalteen erantzuleak:

a) Erantzukizuna nekazaritzako, basozaintzako edo abeltzaintzako ustiategiko titularrarena edota hark lagaturiko pertsona edo entitatearena izanen da, horiek ez badituzte bete Foru Administrazioak, sor litezkeen kalteak ekiditeko edo gutxitzeko, erregelamendu bidez ezarritako zehaztapenak.

b) Erantzukizuna ehiza arloko eskumena duen administrazioarena izanen da, ehizarako espezieek eragindako kalteak ondokoen ondorioz gertatzen badira: ehiza-aprobetxamendua antolatzekeo edo basa fauna eta flora babesteko xedapenak, edota lege honen 44. artikuluan xedaturiko baime-

nak ukatzea edo ematerakoan izandako ardura falta.

c) Erantzukizuna autobide, autobia edo bide- edo ureztatze-azpiegituren titularrarena edo emakida-hartzailearena izanen da, kalteak aldameneko jabari publikoko eremuan bizi diren animaliek eraginak badira.

d) Erantzukizuna ehiza-aprobetxamenduaren titularrarena edo, kasua bada, barrutiaren titularrarena izanen da, kaltea eragiten bada Administrazioak, sor litezkeen kalteak ekiditeko edo gutxitzeko, erregelamendu bidez ezarri eta eginiko eskakizunak ez betetzearen ondorioz.

3. Ehizarako animaliek bide-istripuetan kalterik eragiten dutenerako, bai eta ehizarako animaliek nekazaritzan, oihan- edo baso-eremuan kalterik eragiten dutenerako ere, dirulaguntza arautuko da aseguru-mekanismoa ezartzen laguntzeko. Aseguru horrek Nafarroako ehiza aprobetxamenduen titularraren erantzukizuna estaliko du.

Xedapen gehigarri berria.

Nafarroako Gobernuak, gaian zerikusia dutenen lankidetzan eta partaidetzarekin, prebentzio planak prestatu eta aplikatuko ditu, ehizarako animaliek sor ditzaketan kalteak ekiditeko edo gutxitzeko.

Xedapen iragankor berria: Ehizarako animaliek nekazaritzan, oihan- edo baso-aprobetxamenduetan eginiko kalteak.

Ehiza-espezieek nekazaritzan, oihan- edo baso-aprobetxamenduetan kalteak eragiten dituztenean, foru lege honen 86.3 artikuluan aurreikusitako aseguru modua ezarri bitartean, ordaina jaso behar duen kalte osoaren adinakoak izanen dira nekazariei emanen zaizkien laguntzak, non eta ez den kaltea sortu ehizaren kudeaketan zabarkeriaz jokatzegatik. Hori dela eta, erreklamazio administrazioen prozedura arautuko da. Ebazpena eman eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izanen da, eta epe horretan ebazpenik jakinarazi ezean erreklamazioa ezetsizat joko da.

Azken xedapenetan lehenengoa.

Hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak foru lege honen edukia garatuko du, eta horretarako beharrezkoak diren erregelamenduak emanen ditu.

Azken xedapenetan bigarrena

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

Foru Lege proposamena, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2010eko ekainaren 7ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proposamena

2009ko azaroaren 13ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ahultasun egoera berezian egoteagatik senidetze-ekintzak behar dituzten herrien zentsua egin dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ahultasun egoera berezian egoteagatik senidetze-ekintzak behar dituzten herrien zentsua egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Senidetzeak, herrialde desberdinetako toki entitateen harremana ahalbidetzen duten mekanismo gisa ulertuta, Bigarren Mundu Gerraren ostean sortu ziren modu formalean, gerra garaian elkarren aurka aritu ziren herrien artean. Garai hartan, lotura horiek ahalbidetu zuten senideturiko herriek elkarrekiko mesfidantza desagerraraztea, konfiantzazko harremanak hasia eta elkar adiski-

detzea. 60ko hamarkadatik hasita, senidetzeen izaera aldatu egin zen; izan ere, Europako toki entitateek kontinentez kanpoko herriei laguntzeko elkartasun-ekintza zehatzak abian jartzeko konpromisoa hartu zuten. Hala, Iparraldeko eta Hegoaldeko herrien arteko harremanak ugartzen hasi ziren. Harreman horien bidez, herrien arteko lotura horizontalak sustatzeaz gain, senidetzea lankidetzarako eta zuzeneko elkartasunerako bide bihurtzea lortzen da.

Senidetze batek zentsua izan dezan, ekidin behar da senidetze horren izaera alor sinboliko edo protokolozko soilera mugatzea. Argazki batzuk eta bidaiaren bat egiteak ez du esan nahi bi herri senide direnik. Senidetzeak proiektuen finantzaketatik askoz urrunago joan behar du. Lehenik eta behin, bi herri horietako pertsonak gerturatzeko aukera izan behar du.

Mozio honen helburua da senidetzea sustatzea giza eskubideen defentsa aktiboa bideratzeko tresna gisa. Bizikidetasun eta Nazioarteko Elkartasun Batzorde Berezian askotan entzuten dugu zein egoera latza bizi ohi den giza eskubideak urratzen diren erkidego desberdinetan. Guztion ardura da herri horietan gertatzen diren eskubide-urraketa masiboen salaketatik harago joaten saiatzea. Senidetutako herriek, jarduera eraginkorren eta efizienteen bidez, zenbait politika ezar ditzakete, arrisku egoeran dauden herriak babesteko, haien kulturaren eta hizkuntzaren defentsa modu arduratsuan beren gain hartzeko, gatazken konponbide baketsuan lan egiteko, eta giza eskubideen urraketa-egoeren salaketa eta ikerketa eskatzeko.

Azaldutako guztia dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ahultasun egoera berezian egoteagatik senidetze-ekintzak behar dituzten

herrien zentsua egin dezan, GKEekin lankidetzan, horrela ziurtatzeko herri horietan giza eskubideak betetzen direla.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin lankidetzan, kanpaina bat abian jar dezan, Nafarroako Foru Komunitateko udalerrien eta ahultasun egoera berezian dauden eta giza eskubideak betetzeari dagokionez gabeziak dituzten herrien arteko senidetzeak sustatzeko, hala nola kurduen herria edo Kolonbiako, Boliviako, Mexikoko eta Palestinako zenbait herri, besteak beste.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du giza baliabide eta baliabide material nahikoak jar ditzan toki entitateen eskura, ez bakarrik egin beharreko senidetze-ekintzei buruz informatzeko, baita ekintza horiek elkarrekin lantzeko eta kudeatzeko ere, giza eskubideen defentsaren arloan emaitza onak lortzeko ahalik eta modu efizienteenean.

Iruñean, 2010eko apirilaren 30ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen zehatz dezan Ebro ibaia leheneratzeko eta babesteko plana betetzeko egutegia.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lehenbailehen zehatz dezan Ebro ibaia leheneratzeko eta babesteko plana betetzeko egutegia.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Nafarroako Erribera Behereko udalerrri askok harreman kultural eta ekonomiko estuak izan dituzte Ebro ibaiarekin mendeetan zehar.

Egoera horrek eten bortitza izan du azken urteotan, eta, gaur egun, ibaiaren zati askoren itxura tamalgarria da, ez bakarrik ibaiak daraman uraren kalitateagatik, baizik eta ibaiako bazterrak hondatuta eta erabat utzita daudelako ere. Gainera, arroko lurzoruaren erabilerak aldatu egin dira, despopulazioaren eta industriako, nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako zenbait praktika abian jartzearen ondorioz, eta horrek ere ibaiaren eta bere adarren hondatze sakona ekarri du, arro osoan gauzatzen diren jardueren isla baitira.

Nafarroako Erriberan, garapen ekonomikoak eskatzen du bertako paisaiak lehengoratzea, eta, ikuspuntu horretatik, Ebro ibaia adierazle garrantzitsuena da.

Horren ondorioz, uste dugu beharrezkoa dela Gobernuari eskatzea, udalen laguntzarekin eta Europar Batasuneko funtsen finantzaketa bilatuta, Ebro ibaiaren Nafarroako zatia Lehengoratzeko eta Babesteko Plan Berezia berreskuratu eta behin betikoz bete dezan. Izan ere, 2000. urtean Erribera Behereko eskualdeko hirigintza arauetan eremu berezizat hartzen zen Ebroko ibai parkea, 25 kilometroko naturgune babestu bat sortze aldera. Egiazko ibai parke bat izanen litzateke, natur balio handiko eremuak hartuko litzatekeena, hala nola La Remontako eta El Ramaletoko zalduak.

Zalduez gain, Tuterako udal dermioan badira zenbait aintzira. Garrantzitsuenak El Cardete eta El Pulguer putzuak dira. Putzu horien erakargarri garrantzitsuena dira bertako lezkadietan habia egiten duten anatido espezie ugariak, erraza baita haiek behatzea.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehenbailehen zehatz dezan, Espainiako Gobernuarekin lankidetzan, Ebro ibaia-aren Nafarroako zatian ibai parke bat egiteko egutegia.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarduketa garrantzitsu hori betetzeko eta finantzatzeko egutegia zehatz dezan, udalekin, erakunde autonomoekin eta toki-garapenaren eta ingurumenaren arloan lan egiten duten gizarte-elkarteekin lankidetzan.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2011ko Aurrekontu Orokorretan jarduketa hori egiteko kontusail berariazko bat sar dezan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 3an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mendiko aterpe librearen sarea leheneratzeko eta eraikitze plan bat abian jar dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita mendiko aterpe librearen sarea leheneratzeko eta eraikitze plan bat abian jar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, 2009ko ekainaren 25ean eginiko Osoko Bilkuran eztabaidaturiko jabelduraren ondorioz, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkez-

tu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioak:

Mendizaletasuna eta mendiko jarduerak oso sustraituta daude gure erkidegoan. Elitezko alpinismotik hasita milaka herritarrek egiten duten jarduerara, mendizaletasuna ohikoa eta eguneroko kontua da gure artean.

Gainera, Nafarroak lurralde zabala eta askotarikoa du kirol- eta aisia-jarduera horiek egiteko: Pirinioetako gailurretatik hasita Kodesera, Urbasara, Gerindara edo Bardeara, lurralde osoa da mendiko jarduerarako egokia, erreferentzia ere izateaz gain.

Federazioaren eta mendizaleen elkarten jarduerak Nafarroako Parlamentuaren eta Gobernuaren laguntza izan du azken urteotan, eta horrek ahalbidetu du jarduera hori gauzatu ahal izateko ehunka ibilbide berreskuratzea edo irekitzea, beharreak den egokitzapen eta seinalizatapenaren bidez.

Hala ere, ezin dugu gauza bera esan mendiko aterpeei buruz; izan ere, beste garai batean ohikoak baziren eta ezusteko baten aurrean babesleku bat ziurtatzen bazuten ere, desagertzen edo hondatzen joan dira ia desagertu arte.

Abeltzaintza estentsiboaren beherakadak ere izan du zerikusia horretan, aterpeak horretarako ere erabiltzen baitziren.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Mendi Federazioarekin eta

Mendizaleen Elkartekin lankidetzan, gure erkidegoko mendiko aterpe libreen sarea leheneratzeko eta eraikitzeke plan bat abian jar dezan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 3an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 18/1986 Foru Legea betetzeko erregelamendu berria presta dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 18/1986 Foru Legea betetzeko erregelamendu berria presta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, ondoko mozioa aurkeztu nahi du, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatua izan dadin.

Zioak:

2003an Nafarroako Gobernuak 29/2003 Foru Dekretua, otsailaren 10ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duena, onartu zuen. Aipatu Foru Dekretuak Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak (NJANek) balio-gabetutako 372/2000 Foru Dekretuaren eduki berbera zuen.

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak (NJANek), hamabi epairen bidez, aipatu 29/2003 Foru Dekretuaren 15.1, 18.3, 21.1 eta 23.1 artikulua baliogabetu zituen, funtsean Foru Dekretuak Euskararen Foru Legeak ezarritakoa murrizten baitzuen nabarmen: «... en la práctica se está produciendo a través del reglamento una deshabilitación del rango que la Ley atribuye a esta lengua» (NJANaren 1221/2004 epaiaren, abenduaren 16koaren, 7. oinarria).

Joan den Legegintzaldian Nafarroako Parlamentuak mozio bat onartu zuen 29/2003 Foru Dekretua berraztertu eta, horren ordez, Euskararen Foru Legeak ezarritakoak osoki garatzera zuzendutako araua indarrean para zezala. Legegintzaldi honetan ere, 2009ko maiatzaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, mozio bat onartu zen Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautuko duen Foru Dekretu berria egin zezala Nafarroako Gobernuak, Euskararen Foru Legearen ezinbesteko helburuak erdiestera zuzenduta.

Bertzalde, Nafarroako Parlamentuan eztabaidatu eta ebatzi diren ekimen aunitz aipatu Foru Dekretuak sortzen duen ziurgabetasun juridikoaren erakusle dira: bideetako xafletako testu eta toponimoak, instalazio eta erakunde publikoetako errotulazioak (Nafarroako Justizia Jauregia, Nafarroako Museoa, Liburutegi Nagusia, Ospitale berria, Foruzaingoaren komisaldegia, Baluarte Jauregia...).

2010eko martxoaren 2an Nafarroako Arartekoak "Nafarroako Parlamentuak elebitasunari eta herritarren hizkuntza eskubideen egoerari buruz eskatutako txostena" aurkeztu zuen Nafarroako Parlamentuaren Foru Araubideko batzordearen

aitzinean. Aipatu txosten horrek bere VII. atalean, honela adierazten du egiten duen lehendabiziko iradokizun orokorrean:

“Lehenengoa. Nafarroako Parlamentuak 2006ko otsailaren 2ko bilkuran erabakitakoaren ildotik, Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzeko buruzko otsailaren 10eko 29/2003 Foru Dekretua berraztertzea, haren araupetzea osatzeko, arloari buruzko erabaki judizialen arabera egokitzeko eta Euskarari buruzko Foru Legeak jasotzen dituen alderdi guztien ikuspegi orokor eta erabatekoa eskaintzeko, 1986tik metaturiko esperientziaren argitara.

Horri dagokionez, Nafarroako Gobernuari iradokitzen diogu Euskarari buruzko Foru Legearen exekuzioari buruzko erregelamendu orokor bat egin eta onets dezala, harekin ordeztzeko, ikuspegi osoago batetik eta erabilera sustatzearen ikuspegitik, aipatu foru dekretua eta lehendik dauden beste batzuk, halako moduz non, ahal den adostasun sozial handienarekin, egonkortasuna emanen baitzaie foru legearen garapenari eta aplikazioari. Erregelamendu hori emateko, Euskarari buruzko Foru Legeko 1.2 artikuluan ezarritako funtsezko helburuak hartu beharko lirateke kontuan. Honakoa, hain zuzen:

a) Herritarrek euskaraz jakiteko eta erabiltzeko duen eskubidea babestea eta hura gauzatzeko tresnak zehaztea.

b) Nafarroan euskararen berreskurapena eta garapena babestea, haren erabilera sustatzeko neurriak ezarri.

c) Euskararen erabilera eta irakaskuntza bermatzea borondatezkotasunean, gradualtasunean eta begirunean oinarriturik, Nafarroako errealitate soziolinguistikarekin bat.

Araupetze orokor horrek berriaz estali beharko lituzke erakunde honen ustez Euskarari buruzko Foru Legeak, Nafarroako eremu mistoari dago-

kionez, hizkuntza horren erabilera arruntaren arloan dauzkan hutsuneak (bertan biztanleriaren logikari jarraituz, indar handiagoa jarri beharko litzateke euskara garatzeko eta sustatzeko helburuan, hain zuzen ere foru legeko 1.2 artikuluan azalduta-koan). Izan ere, egiaztatu ahal izan den bezala, eremu horretan bizi dira Nafarroako biztanle gehienak, horietatik zati handi bat euskaldunak, eta bertatik iristen zaizkio Nafarroako Arartekoari administrazio publikoen edo administrazio publikoetako euskararen erabiltzaileari buruzko kexa gehienak (haietatik ia % 90 eremu horretakoak dira).

Aplikazio eremua zabalduko litzateke, hala behar baitu, Nafarroako administrazio publiko guztietara: lurraldekoak, erakundeak, korporatiboak, sozietate publikoak, fundazio publikoak eta abar; bai eta jarduera-esparru desberdinetara ere.”

Hori horrela, ikusita aipatu 29/2003 Foru Dekretua kontrako epaiek nabarmen ahulduta dagoela, ikusita Foru Legea betetzeko sortzen duen ziurgabetasun juridikoa, ikusita Nafarroako Arartekoak erregelamendu berri bat iradoki egin duela eta, azkenik, ikusita Nafarroako Gobernuak oraindik ez dituela Nafarroako Parlamentuaren gehiengoak onartutako mozioak bete, honako hau da Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu duen mozioa:

Mozioa:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du 18/1986 Foru Legearen exekuzioaren gaineko erregelamendu berri bat egin dezala, aipatu Foru Legeak bere 1.2. artikuluan ezarritako ezinbertzeko helburuei loturik eta Nafarroako Arartekoak 2010eko martxoan aurkeztutako txostena kontuan hartuz.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 3an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da pobreziaren behatoki publikoa sor dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita pobreziaren behatoki publikoa sor dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikularen eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Egungo egoera sozial eta ekonomikoak erakutsi du pobreziaren eta bazterketa sozialaren errealitatea aldakorra dela. Baztertuta dauden pertsonen profilak, egoerak eta beharizanak ez dira beti berdinak izaten. Aurten, esaterako, enplegarritasuna eta oinarrizko errenta dira lehentasunak.

Horrekin lotuta, migrazio-mugimenduen, aldaketa demografikoen eta krisialdi ekonomikoen ondorioz, aldaketa sozialak azkarrago gertatzen dira. Hori dela eta, gaur egungo gizarteetan Nafarroaren errealitate zehatzera gerturatuko gaituzten tresnak behar ditugu. Horretarako baliabiderik onena, zalantzarik gabe, Nafarroan abian jarri diren bazterketa sozialaren aurkako planak dira.

Horregatik, garrantzitsua da argi izaten jarraitzea zein den bazterketaren argazkia, gizarte-politikak eraginkorrakoak egite aldera. Gure ustez, beharrezkoa da pobreziari eta bazterketa sozialari buruzko informazio-iturri edo -tresna bat izatea, deskribapen eguneratua izate aldera.

Pobreziaren behatokia, abian jarri duten autonomia erkidegoen eta gobernuz kanpoko erakunde kasuan, tresna interesgarri eta baliotsua bilakatu da pobreziaren alderdi kualitatibo eta kuantitatiboak bildu, ikertu, alderatu eta aztertze-ko. Gainera, eginkizun garrantzitsua izan lezake –eta, gure ustez, izan beharko luke– balioak eta proposamenak gizarteratzeko eta gizartea pobreziaren eta bazterketa sozialaren arrazoiei eta ondorioei buruz kontzientziatzeko eta sentsibilizatzeko.

Hala, behatokiak pobrezia aztertze-ko erreferentzia bilakatu beharko luke. Baliagarria izan behar da jakiteko zeintzuk diren sufritzen duten herritarrak eta zeintzuk diren sufrimendu horri aurka egiteko modurik egokienak. Halaber, baliagarria izanen da Nafarroan abian jarritako gizarteratze-politiken jarraipena eta aldizkako ikuskapena egiteko.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean pobreziaren behatokia sor dezan, eta zuzenean edota Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin eta bazterketa sozialaren arloan lan egiten duten gizarte-entitateekin eginiko hitzarmen baten bidez kudea dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du pobreziaren behatokiak eginkizun hauek izan ditzan behinik behin: datu bilketa, ikerketa, hausnarketa, gizarte-politiken jarraipena eta pobreziaren inguruko kontzientziatzea.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 4an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da luzamendutan ibili gabe NUPen Medikuntzako ikasketak ezartzeko elkarrizketak abiaraz ditzan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita luzamendutan ibili gabe NUPen Medikuntzako ikasketak ezartzeko elkarrizketak abiaraz ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioak

Legebiltzar honek Nafarroako Unibertsitate Publikoari agindu zion azterlan bat egin zezan, unibertsitate horretan medikuntzako ikasketak ezartzearen bideragarritasunari buruz. Txostena aurkeztu zenean agerian gelditu zen Nafarroako

Unibertsitate Publikoa ikasketa horiek abian jartzeko gauza dela.

Sendagileen beharra dago inondik ere, eta ikasleak beste unibertsitate batzuetara alde egiten ari dira eskaintza publikorik ez dagoelako.

Ikasketak ezartzeko babes politikoa badagoez, emateko falta den pauso bakarra da Foru Gobernuaren eta NUPen arteko negoziazioa, unibertsitate publikoan medikuntzako graduako ikasketak abian jartzeko.

Halere, Hezkuntza Batzordean bideragarritasuna aztertzeke lan-talde bat eratu bazen ere, ez ditu lan-saioak hasi ere egin. Nafarroa Bai lantalde horren eratzearen aurka agertu zen, alferrikakoa zela iritzita; izan ere, unibertsitatean egina zuen bere lana, medikuntza ikasketen bideragarritasuna ahalbidetze aldera, eta, bestalde, salatu genuen lan-talde bat osatzearen helburu bakarra zela denbora galtzea eta aipatu medikuntzako gradua abian ez jartzea.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du luzamendutan ibili gabe has ditzan elkarrizketak, NUPen medikuntzako graduako ikasketak, bai eta aipatu unibertsitatearen garpenerako egokitzat jotzen diren bestelako titulazioak ere, ezartzeko prozesua abiarazte aldera.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 6an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Mendekotasun Agentziaren menpeko haurtzaindegiek “haur eskola” izena har dezaten aurrerantzean.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Mendekotasun Agentziaren menpeko haurtzaindegiek “haur eskola” izena har dezaten aurrerantzean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Duela gutxi, Nafarroako Gobernuak deialdi bat egin du Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko zenbait haur-hezitzaile lanpostu oposizio-lehiaketa bidez betetzeko. Lanpostu horiek Burlata, Corella, Lizarra eta Iruñeko haurtzaindegiei atxikita daude, zeinak Nafarroako Mendekotasun Agentziaren menpekoak baitira.

Jakina denez, haurtzaindegia laguntza zentro bat da, eta bertan hiru urtez beherako haurrak zaintzen dira, gurasoak lanean dauden bitartean. Hala ere, badira kontuan hartu beharreko gai garrantzitsuak: batetik, Unescok aldarrikatzen

duela haurrek hezkuntzarako eskubidea dutela jaiotzatik beretik, eta, bestetik, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak Haur Hezkuntzari dagokionez ezartzen dituen printzipioak. Lege horren arabera, Haur hezkuntza izaera berekiko hezkuntza-etapa da, haurrak jaio eta 6 urte betetzen dituzten arte artatzen dituena. Halaber, esaten du ikastetxeek proposamen pedagogiko batean jaso behar dutela zikloen hezkuntzazko izaera.

Beraz, agerikoa da Otik 6 urtera bitarteko zikloak hezkuntzazko izaera duela, eta, horrenbestez, eskola horien izenak, martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuak ezarri moduan, “haur eskolak” izan behar duela, eta eskola horiek, hezkuntzazko izaera izanik, Hezkuntza Departamentuaren menpe egon behar dutela.

Hori dela eta, gure parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Mendekotasun Agentziaren menpeko haurtzaindegiek “haur eskola” izena har dezaten aurrerantzean, hala ezartzen baita martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuen menpe dauden Otik 3 urtera bitarteko zikloko haur eskolak Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuaren menpe egon daitezen.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako aurrekontuetan kontusail bat sar dezan, diru nahikoarekin, Hezkuntza Departamentuak eskola horiek modu egokian kudeatzeko.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 6an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da administrazio-zuzemenak egiteko elkarroperagarritasuna erraztu dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita administrazio-zuzemenak egiteko elkarroperagarritasuna erraztu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Samuel Caro Sádabak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da elkarroperagarritasuna erraztu dezan eta bereziki heda dezan herritarrek Foru Komunitateko Administrazioa zuzentzeko erabil ditzaketen sistema informatikoetara, administrazio-zuzemenak egiteko, agiriak sinatzeko edota bestelako jarduerarako.

Zioen azalpena

Elkarroperagarritasuna da informazio-sistemen eta horietan oinarritzen diren prozeduren ahalmena, datuak partekatzeko eta haien artean informazioa eta ezaguerak trukatzeko. Beharrezkoa da lankidetzarako, garapenerako, integraziorako eta administrazio publikoek zerbitzuak elkarrekin eman ahal izateko, politika publikoak betetze aldera, bai eta zenbait printzipio eta eskubide gauzatzeko, teknologia eskualdatzeko eta aplikazioak berrerabiltzeko, eraginkortasun handiagoa lortze aldera, eta zerbitzu berriak eskaintzeko baliagarriak izanen diren aplikazioen arteko lankidetzarako ere; horrekin guztiarekin administrazio elektroniko-

aren eta informazioaren gizartearen garapena errazten da.

Administrazio publikoen alorrean, herritarrek administrazioekiko harremanak baliabide elektronikoaren bidez izateko eskubidea ezartzeak horien betebeharrak korrelatiboa dakar. Betebeharrak horren oinarriak ondokoak dira: alde batetik, askatasuna eta berdintasuna egiazkoak eta eraginkorrak izan daitezkeen beharrezkoak diren baldintzak sustatzea, eta, bestetik, neutraltasun teknologikoaren eta informazio nahiz komunikazioen teknologien aurrerapenera egokitzearen printzipioaren erabateko aplikazioa eragozten edo zailtzen duten oztopoak kentzea, horrela bermatuta herritarrek alternatiba teknologikoak hautatzeko independentzia, bai eta aurrerapen teknologikoak merkatu librean garatzeko eta ezartzeko askatasuna ere.

Herritarrek zerbitzu publikoak bide elektronikoan bitartez eskuratzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeak elkarroperagarritasunaren protagonismoa aitortzen du, eta arau-aurreikuspenak komunak izan behar direneko alderdietako bat dela adierazten du. Hori dela eta, Estatuak arautu beharrezkoa da.

11/2007 Legeak Elkarroperagarritasunaren Eskema Nazionala sortu zuen, zeinak bilduko baititu administrazio publikoek segurtasunari, kontserbazioari eta normalizazioari buruz kontuan izan beharrezko irizpide sorta, elkarroperagarritasuna –administrazioen artekoa eta administrazioen eta herritarren artekoa– bermatuko duten erabaki teknologikoak hartzeko.

Azkenik, duela hilabete batzuk Elkarroperagarritasun Eskema Nazionala arautu zen errege dekretu baten bidez, zeinaren xedea baitzen beharrezkoak ziren baldintzak sortzea, administrazio publikoek baliatutako sistema eta aplikazioen elkarroperagarritasun tekniko, semantiko eta antolamenduzkoaren maila egokia ziurtatzeko, hala bermatu ahal izateko eskubideen baliatzea eta betebeharren betetzea zerbitzu publikoen sarbide elektronikoaren bidez egin ahal izatea, eta, halaber, eraginkortasunari eta efizientziari mesede egitea.

Errege dekretu horretan elkarroperagarritasun teknikoari buruzko gai garrantzitsuak arautzen dira; hala, 11. artikuluan ondokoa xedatzen da: “administrazio publikoek estandar irekiak erabiliko dituzte, bai eta, kasua bada eta modu osagarrian,

herritarrek oro har erabiltzen dituzten estandarrak ere, bermatze aldera herritarrek eta administrazio publikoek independentziaz hautatu ahal ditzaten alternatiba teknologikoak, bai eta teknologiaren aurrerabidera egokitzeko gaitasuna ere, halako moduz non:

a) Zuzenbide publikoko organo eta entitate igoerleek herritarren eta beste administrazio publiko batzuen eskura jartzen dituzten administrazio elektronikoko dokumentu eta zerbitzuak gutxienez estandar irekien bidez eskuratu ahalko baitira.

b) Administrazio publikoek herritarren edo beste administrazio publiko batzuen eskura jarritako dokumentuak, zerbitzu elektronikoak eta aplikazioak ikusgarriak, eskuragarriak eta funtzionalki egingarriak izanen baitira, kasuaren arabera, halako baldintzetan non neutraltasun teknologikoaren printzipioa betetzea eta herritarrek beren aukera teknologikoa dela-eta baztertuak izan daitezela ekiditea ahalbidetuko baita.”

Artikulu horren azken idatz-zatian ondokoa xedatzen da: “edonola ere, herritarrek aukeratu ahalko dituzte administrazio publikoekin harremanak izateko edo horiengana jotzeko aplikazioak edo sistemak, betiere estandar irekiak erabiltzen

badira edo, kasua bada, herritarrek oro har erabiltzen dituzten bestelakoak. Administrazio publikoek elkarroperagarritasuna errazte aldera, estandarren katalogoak estandar irekien zerrenda bat izanen du eta, kasua bada, baita aplikatzeak diren estandar osagarriena ere”.

Nafarroaren kasuan, Neutraltasun Teknologikoaren Behatokiak foru erkidegoko Administrazioaren zenbait praktika salatu ditu, ez baitute elkarroperagarritasuna errazten, eta, gure ustez, arazo hori lehenbailehen konpondu behar da eta berriro gerta ez dadin ziurtatu behar da. Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du elkarroperagarritasuna erraztu dezan eta bereziki zabal dezan administrazio-zuzemenak egite aldera, agiriak sinatze aldera edo beste edozein jarduketa egite aldera herritarrek Foru Komunitateko Administrazioa jotzeko balia ditzaketan sistema informatiko guztietara.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Adierazpen instituzionala, Kolonbiako eta Antiokiako herri indigenen eskubideen urraketa eta herri horiek nahiz horien kultura berehala desagertzeko arriskuari buruzkoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI

2010eko maiatzaren 3an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Kolonbiako erkidego indigenen oinarritzko giza eskubideen urraketa, eta bereziki Urada Jiguami-ando babeslekuko Alto Guayabaleko herrietakoa, batez ere 2010eko urtarrilaren 30ean gertatutako xaxatzeak eta erasoak.

2.- Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio Kanpo Arazoetarako Ministerioaren bidez gaitzespen-adierazpen hau helarazi diezaien Kolonbiako erakunde eskudunei, eta dei egiten die erakunde horiei nazioarteko

zuzenbide humanitarioaren nahiz giza eskubideen nazioarteko zuzenbideko arauak ziurta eta errespetatu dituzten, batez ere herri indigenen aniztasun etniko eta kulturalarekiko errespetua ziurtatu eta sustatzen dituztenak. Hartara, errepara biezaie bereziki ondokoei:

– Lanaren Nazioarteko Erakundearen 169. hitzarmena eta Kolonbiako herri indigenetarako NBE-eko informatzaile berezien gomendioak egiaz aplikatzea.

– Kolonbiako Konstituzio-Gorte Gorenaren 2009ko 004 Autoa, herri indigenentzako babes plana eta berme programa taxutzeari eta garatzeari buruzkoa, egiaz betetzea.

– Lursail kolektiboen tituluak erosi, esleitu eta saneatze aldera Nazioko Gobernuak hitzartutako akordioak betetzea.”

Iruñean, 2010eko maiatzaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

F saila:
GALDERAK

Galdera, “Liburuzainen prestakuntza” eta “Hitzarmena IPESekin, dokumentazio zentroa mantentzeko” kontusailei buruzkoa.**ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, “Liburuzainen prestakuntza” eta “Hitzarmena IPESekin, dokumentazio zentroa mantentzeko” kontusailei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Jesús Javier Marcote-gui Ros

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186.

artikuluaren eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, Nafarroako 2010eko aurrekontuko zenbait kontusail betetzeari buruzko honako galdera hau aurkeztu du, kasuko batzordean ahoz erantzuteko:

2010erako Nafarroako aurrekontua UPN, PSN-PSOE eta CDNren botoekin onetsi zen. Aurrekontu horretan badaude zenbait kontusail, PSN-PSOEek aurkezturiko zuzenketa batzuen ondorio direnak, eta zuzenketa horiek, halaber, Nafarroako Gobernuaren eta PSN-PSOEren arteko akordio politikoaren berariazko arreta-gaia izan ziren.

Aferaren egoera ezagutzearren, Kultura eta Turismo Departamentuko Liburutegi Zerbitzuari buruzko honako puntu hauen gaineko informazioa eskatzen da:

- “Liburutegietako langileen prestakuntza” Aferaren egoera.

- “Hitzarmena IPESekin, dokumentazio zentroa mantentzeko” Aferaren egoera.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, “Kultur kudeatzaileen prestakuntza”, “Barañaingo Auditorioarekiko hitzarmena” eta “Lenaers Fundazioarentzako laguntza” kontusaileri buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, “Kultur kudeatzaileen prestakuntza”, “Barañaingo Auditorioarekiko hitzarmena” eta “Lenaers Fundazioarentzako laguntza” kontusaileri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babe-

sean, honako galdera hau aurkeztu du, kasuko batzordean ahoz erantzuteko:

2010erako Nafarroako aurrekontua UPN, PSN-PSOE eta CDNren botoekin onetsi zen. Aurrekontu horretan badaude zenbait kontusail, PSN-PSOEk aurkezturiko zuzenketa batzuen ondorio direnak, eta zuzenketa horiek, halaber, Nafarroako Gobernuaren eta PSN-PSOEn arteko akordio politikoaren berriazko arreta-gaia izan ziren.

Aferaren egoera ezagutzearren, Kultura eta Turismo Departamentuko Kultur Ekintza Zerbitzuari buruzko honako puntu hauen gaineko informazioa eskatzen da:

- “Kultur kudeatzaileen prestakuntza” izeneko kontusailaren garapena. Aferaren egoera.

- “Hitzarmena Barañaingo Auditorioarekin” izeneko kontusailaren garapena. Aferaren egoera.

- “Lenaers Fundazioarentzako laguntza” izeneko kontusailaren garapena. Aferaren egoera.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, Zuzkidura Bibliografikoko Ohiz Kanpoko Plana dela-eta Kultura Ministerioarekin hitzarmena sinatzeari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Zuzkidura Bibliografikoko Ohiz Kanpoko Plana dela-eta Kultura Ministerioarekin hitzarmena sinatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, liburutegi publikoetako bildumak hobetze

aldera Espainiako Gobernuak Kultura Ministerioarekin sinatutako zuzkidura bibliografikoaren gaineko hitzarmenaren garapenari buruzko honako galdera hau aurkeztu du, kasuko batzordean ahoz erantzuteko:

Espainiako Gobernuak Kultura Ministerioa Zuzkidura Bibliografikoko Ohiz Kanpoko Plana sustatzen ari da 2006tik aitzina, autonomia erkidegoekin hitzarmenak sinatuta. 2010eko hitzarmena sinatzeko epea, antza denez, martxoaren 10ean amaitu zen.

Hori guztia ikusirik, hona galderak:

- Nafarroako Foru Komunitatea aurreikusitako epean bildu al da hitzarmen horretara?

- Hala baldin bada, zenbat diru heldu da hortik eta zer baldintzatan banatuko da liburutegi publikoen artean?

- Hala ez baldin bada, zergatik ez da bildu ohiz kanpoko plan horretara eta zergatik ez du kasuko hitzarmena sinatu?

- Zer hitzarmen sinatu dira aurreko urteetan? Halakorik baldin badago, zenbat diru heldu zen hitzarmen horietatik?

Iruñean, 2010eko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, Otik 3 urtera bitarteko eskoletan, eta zehazki Burlatakoan, eredu hirueleduna ezartzearen komenigarritasun eta bideragarritasun pedagogikoari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Otik 3 urtera bitarteko eskoletan, eta zehazki Burlatakoan, eredu hirueleduna ezartzearen komenigarritasun eta bideragarritasun pedagogikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako gal-

dera hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, kasuko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

- 1.- Nafarroako Gobernuak ba al du azterlanik, txostenik edo irizpenik gure erkidegoko Otik 3 urtera bitarteko haur eskoletan, Gobernuaren menpekoetan nahiz udal eskoletan, balizko eredu hirueleduna (gaztelania-euskara-ingelesa), betiere esperimentala izanen litzatekeena, ezartzearen komenigarritasun eta bideragarritasun pedagogikoari buruz? Halakorik baldin badago, horien kopia bat jaso nahi dugu.

- 2.- Burlatako Udalarekin lankidetzan ari al da Nafarroako Gobernuak, bere zerbitzu, atal edo unitate teknikoren baten bidez, heldu den ikasturtean aipatu hizkuntza ereduak ezartze aldera herriko haur eskola berrian? Horri buruzko informazioa zehatza jaso nahi dugu.

- 3.- Nafarroako Gobernuak bere oniritzia eman al dio, zerbitzu, atal nahiz unitate teknikoren baten bidez, Burlatako Udalak eskaini duen hizkuntza ereduaren oinarrian ustez dagoen eredu pedagogikoari?

Iruñean, 2010eko maiatzaren 3an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, zahar-etxeetako langileen behin-behinekotasunari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, zahar-etxeetako langileen behin-behinekotasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Behin-behinekotasunari buruzko galdera

- Zein da behin-behineko langileen ehunekoa irabazi asmoa duten enpresa pribatuek kudeaturiko udal jabetzako zahar-etxeetan? 2006tik aurrerako datuak eskatzen dira.

- Zein da behin-behineko langileen ehunekoa titulartasun pribatuko zahar-etxeetan? 2006tik aurrerako datuak eskatzen dira.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, bide-seinale zaharrak kentzeko planei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, bide-seinale zaharrak kentzeko planei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Ba al dago bide-seinale zaharrak kentzeko planik? Halakorik baldin badago, horren kopia jaso nahi dugu.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 4an.

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, deialdi publikoetako lanpostuak betetzeko prozedurari buruzkoa.

AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, deialdi publikoetako lanpostuak betetzeko prozedurari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Lehendakariari, Barne eta Justizia Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Ondokoa jakin nahi dut deialdi publikoetako lanpostuak betetzearen funtzionamenduari eta kudeaketari buruz:

1.- Administrazioan sartzeko zenbat deialdi kudeatu ditu zuzenean funtzio publikoak 2008tik aitzina? Zer lanposturi eragiten diete? Zergatik? Zenbat kudeatu ditu NAPIk 2008tik gaur arte? Zer lanposturi eragiten diete?

2.- NAPIk zuzenean kudeatzen ditu Foru Komunitateko Administrazioak esleitzen dizkion hauta-prozesuak ala kanpoan kontratatzen ditu?

3.- Kontratazioak –zeinahi motatako kontratuak diren ere– kanpoan egin baldin badira, zer lanposturi eragin diete legegintzaldi honetan? Zein izan da esleipen-hartzailea? Zein izan da kostua?

4.- Zertan esku hartu du prozesu horietan esleipen-hartzaileak edo, kasua bada, kontratistak?

5.- Aldatu egin al da langile publikoak, funtzionarioen eta lan-kontratadun langile finkoen lanpostuak barne, hautatzeko irizpidea, pliken sistema kenduta? Hala baldin bada, nork eta zergatik erabaki du aldatzea?

Iruñean, 2010eko maiatzaren 5ean

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, Shanghaiko Erakusketa Unibertsalean parte hartzeari buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, Shanghaiko Erakusketa Unibertsalean parte hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabal andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari Catalán jaunak idatziz erantzun dezan:

Nola hartuko du parte Nafarroako Foru Komunitateak Shanghaiko Erakusketa Unibertsalean?

Iruñean, 2010eko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, subsidiarotasun-printzipioaren kontrolari buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, subsidiarotasun-printzipioaren kontrolari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabal andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari Catalán jaunak idatziz erantzun dezan:

Zer jarrera hartuko du Nafarroako Gobernuak subsidiarotasun-printzipioaren kontrolari dagokionez?

Iruñean, 2010eko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, Alloko saihesbidearen eta Sesmako errepidearen arteko gurutzaguneko kale-argien gastuei buruzkoa.

JOSÉ MARÍA VÁZQUEZ ROYO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José María Vázquez Royo jaunak aurkeztutako galdera, Alloko saihesbidearen eta Sesmako errepidearen arteko gurutzaguneko kale-argien gastuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José

María Vázquez Royok, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Herri Lan, Garraio eta Komunikazioko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Alloko Udalaren ardura al da Alloko saihesbidearen eta Sesmako errepidearen arteko gurutzaguneari jarritako zortzi kale-argien kontsumoa udalaren argiteria publikora konektatzea? Zer arau edo manutan oinarrituta behartu dezake horretara Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak?

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak ba al du asmorik konexioa bere kabuz egiteko eta gastuez arduratzeko, baldin eta Alloko Udalak ez badu bere gain hartu behar zortzi kale-argi horien kontsumoaren gastua?

Iruñean, 2010eko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: José M.^a Vázquez Royo

Galdera, NA-6120 errepideko Berbintzanako bideunearen egoerari buruzkoa.

JOSÉ MARÍA VÁZQUEZ ROYO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José María Vázquez Royo jaunak aurkeztutako galdera, NA-6120 errepideko Berbintzanako bideunearen egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José María Vázquez Royok, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatu-

aren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Herri Lan, Garraio eta Komunikazioko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Azken hilabeteotan, tonaje handiko kamioiek NA-6120 errepideko tarte bat baliatu dute ohiz kanpo, Berbintzanako udal mugapearen barruan, Nafarroako Ubideko tarteune bateko obretarako legar-hobi bat ustiatzearen ondorioz, eta horrek kalte handia egin dio errepide horren zoruari.

Hori ikusirik, ondokoa jakin nahi dut:

Berbintzanatik gertu dagoen legar-hobi bat ustiatzearen ondorioz bertatik iragaten diren tonaje handiko kamioiek, antza denez, kalte handia egin diote NA-6120 errepideko tarte horri. Zer egingen du Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua arazo hori konpontzeko?

Iruñean, 2010eko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: José M.^a Vázquez Royo

Galdera, Iruritako ikastetxe publiko berrian jantokia paratzeko gune bat ukatzeari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

María Luisa Mangado Cortes andreak aurkezturiko galdera, Iruritako ikastetxe publiko berrian jantokia paratzeko gune bat ukatzeari buruzkoa, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea.

Galdera hori 2010eko apirilaren 9ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros